# ARRAUTZA BATEN BALIOA

Egun baten, David erregearen soldadu bat, gose zen, eta esan zion bere lagun bateri, arrautz bat eman al zion mesedez. Bere lagunak, baietz esan zion, baina berak esaten zuenean, bueltatzeko baldintzarek. Hiru urte beranduago, bere lagunak bueltatzeko eskatu zion, eta soldaduak arrautza eman zion. Ez, ez, ez, arrautza horretatik, txita bat jaio al zen, eta txita hori oilo bihurtu. Gero oiloak, hamazortzi txita eduki ahal zuen, eta hori eman behar didazu, txita bat, gehi beste hamazortzi txita.

-Ez, ez nago ados- esan zuen soldaduak.

Erregeari galdetu zioten, eta nire lagunak arrazoia zuela esan zuen. Ondoren Salomon, David erregearen semeak, galdetu zion ea zer gertatzen zitzaion. Eta hemeretzi txita eman behar zituela eta ez zekiela nondik atera esan zion.

-Nik ideia bat emango dizut- esan zion Salomonek.

-Larrauriko plazan dagoen baserrira joan, eta hango gizonari azaldu zure arazoa- aolkatu zion Salomonek.

-Nahi baduzu nire zaldia

utziko dizut bertara joateko.

- Eskerrik asko Salomon!!! Bihar goizean etorriko naiz zaldiaren bila - eskertu zion soldaduak.

Hurrengo egunean, motxilan hainbat janari sartu eta Salomonen zaldia hartuta, Larraulirantza abiatu zen. Plazan zegoen baserriko txirrina jo zuen eta gizon bat berarengana hurbildu zen.

-Kaixo, David erregearen soldadu bat naiz. Txitak behar ditudalako etorri naiz zuregana - aurkeztu zen soldadua.

-Kaixo, ni Julen naiz. Txiten truke nire baserrian lan egitea proposatzen dizut - erantzun zion gizonak.

Soldaduak onartu egin zuen eta barazkiak ureztatzen zituen, animaliak zaintzen zituen, janaria prestatzen zuen... Lan bakoitzagaitik, Julenek, arrautz bat sartzen zion inkubagailuan. Horrela, hogei txita zituenean, soldadua baserritik joan zen. Gainera lan onagaitik Julenek inkubagailua oparitu zion. Gurdia zelara lotu, eta bere gauza guztiekin lagunarekin etxera joan zen.

-Kaixo, hemen dituzu zure hemeretzi txitak - esan zion.

Gero, bere etxera bueltatu zen, eta txita eta inkubagailuari esker, ez zuen inoiz gehiago goserik pasatu.

Ala bazan edo, ez bazan, zar dadila Kalabazan, eta atera dadila Larrauriko plazan.

